

# Argitaratu dira 2020ko Laneko Programa berriak eta Horizon Europe programako Plan Estrategikoa

## HORIZON 2020

**Europako Batzordeak *Horizon 2020* programako 2018-2020 aldirako Laneko Programa berriak argitaratu ditu, azken urterako (2020). Horietan, programari amaiera emango dioten jarduketa-ildoak aurkeztu ditu, 11.000 milioi euroko aurrekontua dutenak.**

**Horrez gain, EIP-AGRI (<https://ec.europa.eu/eip/agriculture/en/about>)k dokumentu bat argitaratu du, eta bertan bildu ditu nekazaritza jasangarriarekin lotutako deialdiak.**

CE: 2020ko Laneko Programa: Elikadura-segurtasuna, nekazaritza jasangarria eta basogintza; Itsasoko eta barnealdeko uretako ikerketa; eta Bioekonomia”  
([http://ec.europa.eu/research/participants/data/ref/h2020/wp/2018-2020/main/h2020-wp1820-food\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/research/participants/data/ref/h2020/wp/2018-2020/main/h2020-wp1820-food_en.pdf))

EIP-AGRI: Brochure on Funding opportunities under Horizon 2020 - Calls 2020  
([https://ec.europa.eu/eip/agriculture/sites/agri-eip/files/eip-agri\\_brochure\\_horizon\\_2020\\_calls\\_2020\\_2019\\_en\\_web.pdf](https://ec.europa.eu/eip/agriculture/sites/agri-eip/files/eip-agri_brochure_horizon_2020_calls_2020_2019_en_web.pdf))

EB: Horizon 2020 portala (<https://ec.europa.eu/info/funding-tenders/opportunities/portal/screen/how-to-participate/reference-documents;programCode=H2020>)

## HORIZON EUROPE (2021-2024)

Bestetik, Europako Batzordeak **kontsulta publiko bat egin du hurrengo Ikerketa eta Berrikuntzako Esparru Programaren (*Horizon Europe*) lehen lau urteetarako Plan Estrategikoa prestatzeko. 100 bilioi euroko aurrekontua dago programa hori gauzatzeko.** Kontsulta hori abiarazi da, hain zuzen, Programari itxura emateko eta lehenetsunak ezartzeko martxan jarritako baterako diseinatze-prozesuaren barruan. Programak herritarren bizitza hobetzen lagundu behar du, bidea emanez gizarteko erronka nagusiak, hala nola klima-aldaketa, berrikuntzarako aukera bihur daitezten eta etorkizun jasangarri baterako konponbideak aurki ditzagun.

Plan Estrategikoari esker, errazagoa izango da Horizon Europe programa ezartzea; izan ere, zubia izango da Programa Espezifikokoaren (<https://data.consilium.europa.eu/doc/document/ST-8550-2019-INIT/en/pdf>) eta urte anitzeko laneko programen artean. Azken horietan zehaztuko da proposamenen deialdien edukia.

Kontsultari erantzun aurretik dokumentu hau begiratzea gomendatzen da: Orientations towards the first Strategic Plan implementing the research and innovation framework programme Horizon Europe ([https://ec.europa.eu/research/pdf/horizon-europe/ec\\_rtd\\_orientations-towards-the-strategic-planning.pdf](https://ec.europa.eu/research/pdf/horizon-europe/ec_rtd_orientations-towards-the-strategic-planning.pdf)). Dokumentu horretan Plan Estrategikoaren ikuspegia eta planteamendua daude jasota, lehenetsunean, elkarketei eta misioei dagokienez.

**EBren I+Baren etorkizunean interesa duten guztiak animatzen ditugu kontsultan parte hartzera. Irailaren 8ra arte izango dute horretarako aukera.**

**Gainera, kontsulta hau aukera paregabea da “Elikadura, bioekonomia, baliabide naturalak, nekazaritza eta ingurumena” arlo espezifikoan dauden ikerketa-beharrei buruzko ekarpenak egiteko.**

"Horizon Europe" kontsulta publikoa ([https://ec.europa.eu/eusurvey/runner/HorizonEurope\\_Codesign\\_2021-2024](https://ec.europa.eu/eusurvey/runner/HorizonEurope_Codesign_2021-2024))

EB albistea ([https://ec.europa.eu/info/news/have-your-say-future-objectives-eu-funded-research-and-innovation-2019-jun-28\\_en](https://ec.europa.eu/info/news/have-your-say-future-objectives-eu-funded-research-and-innovation-2019-jun-28_en))

"Horizon Europe" informazioa ([https://ec.europa.eu/info/designing-next-research-and-innovation-framework-programme/what-shapes-next-framework-programme\\_en](https://ec.europa.eu/info/designing-next-research-and-innovation-framework-programme/what-shapes-next-framework-programme_en))

---

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)